

SAN BARTOLOME KULTURGUNEAN (LEIOA) DAGOEN ETA "ZUHATZU TXOKOA" IZENA DUEN GIZARTE, KULTURA ETA GASTRONOMIARAKO INSTALAZIOAREN (UDAL-TITULARTASUNEKOA) ERABILERA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA

1. ARTIKULUA. HITZAURREA

San Bartolome Kulturguneko eraikina oraintsu berriro ondoren, txokorako lekua gaitu da bertan. Txokoaren izena "Zuhatzu Txokoa" da.

Txoko hori Leioa udalerriko herritar, egoiliar eta erroldatu guztien eskura dago. Hala ere, txokoak hainbat berezitasun ditu, eta bere kokapen, sormen, jatorri eta abarren ondorioz, araudi honetan sartu dira berzitasunok.

Hori horrela, Kulturgunean birgaitu berri den eraikinean kokatzen denez (hitzaldi-aretoak, tailer-gelak, etab. ditu), **topaketa-gunea** da Peruri, Zuhatzu, San Bartolome, Artatza, Artatzagana, Basaez, Telleria, Aldekoena eta Sarriena auzoetako herritarrentzat.

Ondorioz, araudi honek ematen dituen mugen barruan eskatu ahal da txokoa.

Era berean, **Leioako elkarteek**, eta batez ere, aurretik aipatutako auzoetan dauden elkarteek udalerriko gizarte-sareari ematen dioten lana eta garrantzia azpimarratu nahi ditu Leioako Udalak. Horregatik, Udal honek elkarte horiei ere ematen die eskatzaile-eskubidea, eta horiek ere araudi honetan zehaztutako mugak bete beharko dituzte.

2. ARTIKULUA. HELBURUA

Leioako Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluan aitortutako autoantolaketa-ahalmenak eta Udalari aitortutako eskumenak erabiliz, honakoa ezarri du: San Bartolome Kulturgunean gizarte, kultura eta gastronomiarako lekua gaitzeko lokalak erabiltzean datzan kultura-zerbitzua, hemendik aurrera "txoko" izena izango duena.

Araudi honetan ezartzen da udal-titulartasuneko txoko hau erabiltzeko araubidea eta kultura- eta aisialdi-jarduerak egiteko erabiliko da. Txokoa kultura gastronomikoa hedatzeko izango da eta "tabakorik gabeko gunea" da.

3. ARTIKULUA. ESKATZAILEAK

1. Eskatzailetzat joko da pertsona-talde baten (aurrerantzean erabiltzaileak) izenean txokoa eskatzen duen pertsona fisikoa.
Eskatzailea zerbitzua erabiliko duen erabiltzailearen bat izan beharko da nahitaez.

Honakoak izan daitezke eskatzaileak:

- 1.1. Leioan erroldatuta daudenak eta bertan bizi direnak.
- 1.2. Irabazi asmorik gabeko kultura-elkarteak, gizarte-egoitza Leioan dutenak edo beren jardueren zati bat nabarmenki Leioan egiten dutenak, baldin eta Leioako Udalak halakotzat jotzen baditu.

2. Pertsona fisikoek araudi honetan ezarritako betekizunak bete arren ezin izango dute eskaerarik egin, honako egoeratan: eskaera betetzeko betekizunak betetzen ez dituzten pertsona edo erakundeei txokoa erabiltzen utzi nahi badiete edo ezarritako lehentasunen betearazpenari iruzur egin nahi badiete.

4. ARTIKULUA. ESKATZAILEEN MUGAK

1. Eskatzaileek 18 urte beteta eduki beharko dituzte, eskaera egiten dutenean.
2. Eskatzaileak Udalaren lehentasunezko eskubidepean egongo dira. Ondorioz, antolaketa, zerbitzu edo beste arrazioen bategatik, Udalak erabilera-eskaera baliogabetu ahalko du. Kasu horretan, Udalak, bere irizpidearen arabera, erabiltzeko eskubide berezia eman ahalko du.
3. 3.1.2. artikuluan zehaztutako elkarteak beren legezko ordezkariak edo funtzio hori eskuordetuta dutenek ordezkatzeko dituzte.
4. Egun berdinerako eskaerak eginez gero, eskaera lehenago egin dutenek lehentasuna izango dute.
5. Eskatzaileek eta eskaeraren xede diren erabiltzaileek txoko bakarra eskatu ahalko dute egunean, ezarritako ordutegian, eta ezin izango da eguna banatu (orduka, egun erdika...).
6. Eskatzaile eta erabiltzaileek araudi honetan ezarritako muga guztiak bete beharko dituzte, eta, eskaera eragitean, muga horiek aplikatuko zaizkie.
7. Emandako baimenak pertsonalak eta besterenezinak dira. Ondorioz, ezingo dira inola ere eskatzaile eta erabiltzaileen artean aldatu. Horretarako, eskaera berri bat egin beharko da edo eskatzailearen bertara joateko ezintasuna egiaztatu beharko da.
8. Eskatzaileak izaera hori galduko du, 12. artikuluan zehaztutako kasuren bat gertatuz gero.

5. ARTIKULUA. ESKAERAK

1. Eskaera egiteko, Udaleko Erregistrora joan beharko da, jendeari arreta emateko ordutegian, eta eskaera-inprimakia bete. Inprimakiaren batera, NANaren edo eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiriaren kopia ere aurkeztuko da.
Halaber, eskaera posta elektronikoko helbide honetara igorri ahalko da: registro@leioa.net.
2. Eskaera txokoa erabili nahi den data baino egutegiko 15 egun lehenago eskatu beharko da, gutxienez, eta egutegiko 30 egun baino lehenago, gehienez.
3. Eskaera-orrian, honako datuak bete beharko dira:
 - 3.1 Izena eta abizen bi.
 - 3.2 NANA.
 - 3.3 Helbidea.
 - 3.4 Harremanetarako telefono-zenbakia.
 - 3.5 Jaioteguna.
 - 3.6 Ospatze-eguna.

- 3.7 Erabiltzaile-kopurua.
- 3.8 Eskabidea egiteko arrazoia.
- 3.9 Erakundeen kasuan, ordezkartzaren izena eta IFZ.

6. ARTIKULUA. BAIMENAK, ERRESERBAREN BAIIEZTAPENAK ETA UKAPENAK EMATEA.

1. Eskaera egindakoan eta antzemandako akatsak zuzendutakoan, hala badagokio, Udalak txokoa erabiltzeko eskubidea eman edo ukatuko du, Alkatetzaren Dekretuaren bidez. Hilabeteko epean ebazten ez bada, administrazio-isiltasunagatik ezetsi dela ulertuko da.
2. Txokoa erabiltzeko eskubidea emango den ebazteko, Udalak 3. eta 4. artikuluetan ezarritako irizpide eta lehentasunak hartuko ditu aintzat.
3. Udalak eskaera ukatu edo bere edukia mugatu ahalko du, arrazoituz gero. Era berean, baimenak baliogabetu ahal izango dira, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, behar bezala arrazoitutako bat-bateko inguruabarrek edo interes publikoa babestek hala eskatzen badute.
4. Eskaeran agertzen den erabiltzaile-kopurua txokoko edukierak baimentzen duena baino handiagoa bada edo 12. artikuluko kasuetako batengatik zigorra jaso badute, baimena ukatuko da.

7. ARTIKULUA. EDUKIERA

1. Erabiltzaile-kopuruak (eskatzailea barne) ezin izango du txokorako ezarritako edukiera gainditu.

8. ARTIKULUA. ERABILTZEKO ORDUTEGIA

Eguneko eskaera bakarria baimenduko da.

Txokoa erabiltzeko, honako ordutegia ezarri da:
Astelehenetik ostegunera, baimenean eskatutako eguneko 10:30etik hurrengo eguneko 0:30ak arte.
Ostiraletan, larunbatetan eta jai-egunen bezperetan, baimenean eskatutako eguneko 10:30etik hurrengo eguneko 1:30ak arte.
Igandetan, baimenean eskatutako eguneko 10:30etik hurrengo eguneko 0:30ak arte.

Ordutegi honen barruan, erabiltzaileek komeni zaien ordutegian erabili ahal izango dute lokala (bazkaria, askaria, afaria).

22:00etatik aurrera, txokoaren barruan dagoenak zuzeriaz jokatu beharko du. Hori horrela, zaratak, ahots ozeneko elkarrizketak etab. saihestuko ditu, eragozpenak sortzeaz gain, kanpoari eragin baitiezaieke.

Lokaletik 22:00etik aurrera joanez gero, ez da ate ondoan edo inguruan egongo eta auzokideak gogaitzeko moduko oihuak eta iskanbilak saihestuko dira.

9. ARTIKULUA. TASA ETA FIDANTZAK

1. Dagokion zerga-ordenantzak arautuko ditu tasak eta fidantzak.
Tasa erreserba, erabilera eta mantenamenduko (argia, ura, garbiketa...) gastu gisa ezarriko da.
Txokoa behar bezala erabiliko dela bermatzeko eta instalazioetan zerbait hondatzekotan edo eskatzaileari zigorren bat ezartzekotan hori ordaintzeko izango da fidantza; era berean, txokora sartzeko eman diren giltzak Leioako Udalari itzuli ez izana estaltzeko ere erabili ahal izango da.
2. Honako arau hauen arabera ordainduko dira tasa eta fidantzak:
 - a) Instalazioen eskatzaileak ordaindu beharko ditu.
 - b) Erreserba baieztatutakoan eta baimena emandakoan (Alkatetzaren Dekretuaren bitartez ebatzita) egin beharko da ordainketa, betiere txokoa erabili baino 48 ordu lehenago, gutxienez.
Zenbateko bien batura (tasak eta fidantza) sartu beharko da BBK-ko kontu zenbaki honetan: 2095 0048 24 32 3901 3049. Bertan, honakoak jasoko dira: "San Bartolome txokoa" eta eskatzailearen izena.
Erabiltzaileen kopurua erreserban azaldutakoa baino handiagoa balitz, kontu berean ordainduko da diferentzia.
Inola ere ezin izango da dirurik utzi txokoa.
3. Ordaindutako tasak itzultzeko eskubidea duten erreserbak ukatu nahi izanez gero, behar bezala arrazoitutako arrazoiengatik baino ez dira onartuko, Kultura Zuzendaritzak askatasunez erabakitzen duenean, eta betiere txokoa erabiltzeko erreserbatu den jarduera hasi baino gutxienez 8 egun lehenago jakinarazten bada.
4. Erabiltzeko eskubidea baimendu arren erabili ez bada, fidantza bakarrik itzuliko da, baina tasa ez da inola ere itzuliko, inguruabar hori egiaztatu ondoren.
5. Erabiltzeko eskubidea erabili ondoren eta araudi hau behar bezala bete dela egiaztatuta, fidantza itzuliko da, gehienez egutegiko astebeteko epean, lokala erabili zen egunetik zenbatzen hasita.

10. ARTIKULUA. ESKATZAILE ETA ERABILTZAILEENTZAKO DEBEKUAK

Eskatzaileak eta lokalaren erabiltzaileek honako debekuak izango dituzte:

1. Debekatuta dago mahaiak, aulkiak edo higiezinaren barruan dagoen beste edozein objektu ateratzea.
2. Debekatuta dago kanpoan sua egitea, esaterako parrillak, barbakoak edo bero-fokua eskatzen duen beste edozein objektu.
3. Debekatuta dago lokala eskabidean adierazi ez den helbururen baterako erabiltzea.
4. Lokala erabilitakoan, debekatuta dago jateko, edari, zabor edo beste edozein material barruan uztea, aurretiaz higiezinan egon ez bada.
5. Debekatuta dago kanpoan musika-tresnak edo antzekoak instalatzea, Udalaren beren-beregiko baimenik gabe.

6. Debe katuta dago barrualdean musika-tresna edo antzekorik piztu edo abiaraztea, 65 dezibel baino gehiagoko bolumenean.
7. Debe katuta dago eskatzaileak lokalaren erabilera hirugarren bati lagatzea.

11. ARTIKULUA. ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK

Eskaera sinatu zuenak, edo hala badagokio, ordezkatzeko duen erakundeak txokoa erabiltzen badu, bera izango da bertan egingo den jardueraren erantzulea eta araudi honekin batera erantsiko den Barne Araubidea betetzeko konpromisoa hartuko du. Txokoa erabiltzeko baimena eman denean, araubide horren kopia bat emango zaio eskatzaileari.

Txokoaren erabiltzaileek lokala egoera ezin hobean eta garbi izan beharko dute eta higiezinaren edo ekipamenduan kalteak eragin ditzaketean liskar, edo, oro har, ekintzak saihestuko dira.

Era berean, udal-arduradunek edo bertako arduradunek esandakoa bete beharko dute. Halaber, erabili daitezkeen espazio edo materialak modu egokian eta beharrezko xederako erabiliko dira eta erabiltzaileak izango dira ondasun eta pertsonen eragin liezazkieketen kalteen erantzuleak.

Eskatzaileak eta lokalaren erabiltzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

1. Eskabidea bete, tasak eta fidantza ordaindu eta debekuak eta ordutegia betetzea. Era berean, Udalak onuradunari helarazitako gainerako ohar guztiak ere bete beharko ditu (erantzukizun zibileko aseguruaren eskaera barne).
2. Giltzak itzultzea erabileraren hurrengo lanegunean.
3. Egin diren kalteak aitortzea, iradokizunen eta kalteen orria erabilia.
4. Higiezinaren eta bertako elementu guztien segurtasuna zaintzea, bai eta horren berri ematea ere.
5. Lokala erabili ondoren, argiak itzaltzea, gasaren giltza ixtea, tresna elektrikoak itzaltzea (itzali behar ez direnak salbu), ateak eta leihoak itxita daudela bermatzea eta txokoa erabilitakoan sortutako zaborra ateratzea, bakoitzaren birziklapenaren arabera banatuta.

12. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Udaleko langileek bidezkoak diren ikuskapenak egingo dituzte eta erabiltzaileek araudi hau betetzen dutela egiaztatuko dute, administrazioko arau-haustek sortzen dituzten jarduerak eta ez-egiteak ezartzeko.

1. Araudi honetako arauak hausteari dagokionez, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke arau-haustek.
 - 1.1 Hona hemen arau-hauste oso larriak:
 - 1.1.1 Txokoa beharrezko baimenik gabe eta tasaren eta ezarritako fidantzaren zenbatekoak ordaindu gabe erabiltzea.
 - 1.1.2 Baimena daukan pertsona edo taldeari txokoa erabiltzea galaraztea.
 - 1.1.3 Adingabeak txokora sartzea baimentzea, euren guraso edo tutoreak egon gabe.

- 1.1.4 Bai instalazioetan bai erabiltzeko dauden materialetan (esaterako eraikuntzan) kalteak nahita egitea, berau erabiltzea saihestuz.
- 1.1.5 Ixteko ezarritako ordua ordu bete baino gehiagoan gainditzea.
- 1.1.6 Txokoa baimendutakoa ez den beste pertsona bati lagatzea.
- 1.1.7 Zigor-espedientea ireki aurreko urtean zigorren bat izatea, arau-hauste arin bi edo arau-hauste larri bat egiteagatik.
- 1.1.8 Txokoko erabiltzaileen eskura jarritako instalazio, zerbitzu eta materialak txarto erabiltzea, horietan kalteak edo arrazoitu gabeko arriskuak sortuz.
- 1.1.9 Ateak eta leihoak ez ixtea, bai eta gasaren giltzak eta alarmaren konexioa ez ixtea ere.
- 1.1.10 "Tabakorik gabeko gunea" dela ez errespetatzea.

1.2 Hona hemen arau-hauste larriak:

- 1.2.1 Eskabidean azaldutako daturen bati buruz gezurra esatea, datu hori erabakigarria bada baimena emateko; gainera, eskumeneko jurisdikzio bidera jo ahal izango da.
- 1.2.2 Musika-tresnen, megafoniaren edo antzekoen bitartez 65 dezibel baino gehiagoko zarata sortzea.
- 1.2.3 Txokoa araudian ezarri ez den helbururen baterako erabiltzea.
- 1.2.4 Kanpoan sua egitea, parrilla, barbakoa edo bero-fokua eskatzen duen beste edozein objektorekin, eraikinean eta instalazioetan arriskua sortu eta herritarrei alarma eragiteko moduan.
- 1.2.5 Mahaiak, aulkiak edo txokoko beste edozein material ateratzea, arrazoirik gabe.
- 1.2.6 Zigor-espedientea ireki aurreko urtean zigorren bat izatea, arau-hauste arin bat egiteagatik.
- 1.2.7 Udalari txokora sartzeko giltzak ez itzultzea, berau erabili osteko 48 orduen barruan.

1.3 Hona hemen arau-hauste arinak:

- 1.3.1 Araudi honen 8. artikuluan azaldutako betebeharren bat ez betetzea.
- 1.3.2 Jatekoak edo norberak erabiltzeko beste objekturen bat sartzea eta txokoa erabiltzeko baimendutako aldia amaitutakoan ez kentzea.
- 1.3.3 Kalteak eragitea tresnetan edo instalazioetan, horiek erabiltzeko arauak ez jarraitzeagatik edo behar ez bezala erabiltzeagatik.
- 1.3.4 Araudi honetan azaldutako edukia edo Alkatetzak emandako gainerako argibideak beste edozein modutan haustea.

2. Aurreko ataletan azaldutako arau-hausteez honako zehazpenak jasan ahalko dituzte:

- 2.1 Arau-hauste oso larriak: 1.500 eta 3.000 euro arteko isunak jaso ahalko dituzte. Arau-haustea egin duten pertsonak aurretik arau-hauste larriren batengatik zigorra jaso badute, eskatzailea eta erabiltzaileak ezin izango dira txokora sartu bost urtez.
- 2.2 Arau-hauste larriak: 751 eta 1.500 euro arteko isunak jaso ahalko dituzte. Arau-haustea egin duten pertsonak aurretik arau-hauste larriren batengatik zigorra jaso badute, eskatzailea eta erabiltzaileak ezin izango dira txokora sartu bost urtez.
- 2.3 Arau-hauste arinak: 200 eta 700 euro arteko isunak jaso ahalko dituzte. Arau-haustea egin duten pertsonak aurretik arau-hauste larriren batengatik zigorra jaso badute, eskatzailea eta erabiltzaileak ezin izango dira txokora sartu urtebetez.

3. Arin gisa kalifikatutako arau-haustea egin duten pertsonak aurretik arau-hauste larri edo oso larriren batengatik zigorra jaso badute, zigor osagarria jasoko dute: arau-hauste larrienerako zehaztutako aldian ezin izango da txokora sartu. Era berean, arau-hauste larriaren zigor-espeditentea tramitatzekotan adierazitako zigor osagarria ere ezarriko zaio.
4. Arau-haustearekin batera adierazpen edo eduki xenofobo, arrazista edo sexistak ere egitekotan, zigorrik handiena ezarriko zaio.
5. Arau-hausteren bat ez bada bereziki nabarmena, hutsegitetzat jo ahalko da, eta ez arau-haustetzat.

13. ARTIKULUA. ZIGOR-ESPEDITENTEA TRAMITATZEA

1. Espedientea tramitatzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Administrazio Publikoen Zehapen Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean eta horien garapen-araudietan aurreikusitakoari jarraituko zaio. Arestian aipatutako arauen arabera izendatuko da prozeduraren instrukzio-egilea. Alkatetza izango da zigor-prozedurak ebazteko organo eskuduna.
2. Baimenaren eskatzailea izango da araudi honetako arau-hausteen erantzulea. Hala ere, espeditentek ireki ahal izango zaizkie araudi honetan azaldutako arau-hausteen egileei, eta txokoaren erabiltzaile guztiek solidarioki ordaindu beharko dute ezarritako zigorra. Erabiltzailetzat joko da txokora aurretik adierazitako jarduerak egitera (txokoaren xede direnak) doan pertsona oro eta, egindako eskaeraren arabera, Udalaren baimena jaso duena.
3. Araudi honetan azaldu diren erabiltzailearen betebeharrak eta eginbeharrak ezkutuan edo beren-beregi ez betetzeagatik sortuko dira zigorrak, eta euren egoera balioztatu ondoren ebatziko dira.
4. Egutegiko urtebeteko epean 3 hutsegite egiten badira, ezin izango da txokoa erabiltzeko eskatu, hirugarren hutsegitetik zenbatzen hasi eta urtebeteko epean.

14. ARTIKULUA. UDALAREN BETEBEHARRAK

1. Udalak txokoa egoera onean eduki beharko du, eta, zeregin horretan honakoak sartzen dira: garbiketa; ura, gasa eta elektrizitatea ordaintzea; erabili ez diren materialen ordezkariak jartzea eta instalazioen erabilera arruntaren ondorioz hondatu diren instalazioak konpontzea.
2. Baimen-eskaera zehaztutakoan, Udalak bidezko kudeaketak egingo ditu, txokora sartu ahal izateko eta bertara sartzeko giltzak emateko.

I. ERANSKINA

SAN BARTOLOME KULTURGUNEKO ZUHATZU TXOKOAREN BARNE-ERREGIMENAREN ARAUBIDEA

Eskatzaileak, txokoa erabiltzeko Leioako Udalaren baimenaren jakinarazpen ofiziala jasotakoan, lokaleko **giltza** jaso beharko du Kultur Leioan (José Ramón Aketxe plaza, 11), txokoa erabiliko den egunean bertan.

Horretarako, bankuko abonu-agiriaren kopia aurkeztu beharko du, dagozkion tasak eta fidantzak ordaindu dituela egiaztatzeko.

Txokoa 24 mahaikideentzat behar den **tresneria** dago (mantelak, zapiak, sukaldeko trapuak, mahaitresnak, ontziak, beirateria, sukaldeko ontziteria, etab.).

Eskatzaileak eta bere lagunek jakiak egiteko beharrezkotzat deritzotena eraman beharko dute.

Txokoko zerbitzuen erabiltzaileek **arreta handiz beteko dituzte txokoa erabiltzeko jarraibideak eta ezarritako araudiak, bai eta lokalean bertan dauden informazio-oharrak ere.**

Txokora ezin izango da txakurrik edo bestelako animaliarik sartu.

Udal-titulartasuneko lokala denez, eta tabakoaren kontsumoa arautzen duen legedia betez, txokoaren barrutian erretzea guztiz debekatuta egongo da.

Guztiz debekatuta dago txokoa diruzko jokorik egitea edo kopuruak galdu eta irabaztearen ondorioz erabiltzaileen arteko harremana oker dezakeen jokorik egitea.

Era berean, txokoa erabiltzen dutenek udal-arduradunek edo bertako arduradunek esandakoa bete beharko dute. Halaber, erabil daitezkeen espazio edo materialak modu egokian eta beharrezko xederako erabiliko dira eta erabiltzaileak izango dira ondasun eta pertsonen eragin liezazkieketen kalteen erantzuleak.

Txokoa eta bertako materialak txarto edo modu okerrean erabiltzearen ondorioz gerta litezkeen kalteak ezin izango zaizkio Leioako Udalari egotzi eta ezin izango zaio berari ordaintzeko eskatu, ez bada erabiltzaileen errua edo arduragabekeria izan behintzat (halakorik izanez gero), edo ez bada gozako erlazioz kalteen eta materialaren zein instalazioen goera txarraren artean.

Udal-langileen aginduak hautsiko edo beteko ez lituzketen lagunei, edo zerbitzua, lokala eta bertako materiala antolatutako jardueren xederako erabiliko ez luketenei, edo lokalean, instalazioetan edo bertako osagaien batean kalteak eragingo lituzketenei, oro har, zigorra ezarriko zaie aplikatu beharreko araudia aintzat hartuta. Zigorra ezartzerakoan kalteen asmoa eta larritasuna eta kaltearen zenbatekoa hartuko dira kontuan.

Eskatzailea ezin izango da inola ere txokotik joan, gainerako erabiltzaileak bakarrik utzita.

Debekatuta dago txokoko instalaziokoak ez diren elementuak jartzea, Kultura Zuzendaritzari alde aurretik horren berri eman barik eta hark elementua jartzea baimendu barik. Halaber, elementu horiek jartzeak ez du inoiz eraginik izango San Bartolome Kulturguneko instalazioetan normalean edo noizean behin egiten diren jardueretan; jarduerak ohiko moduan gauzatzen jarraituko da.

Udala ez da txokoko erabiltzaileek galdutako objektuen erantzulea izango.

Txokoan dauden erabiltzaileen erantzukizuna izango da bertan egingo den edozein gertaera. Era berean, ondare-ondasunen eta Kultura Arloaren eta Leioako Udalaren izen onaren kontra egindako gertaera ororen erantzuleak ere erabiltzaileak izango dira.

Txokoko erabiltzaileek uneoro errespetatu beharko dituzte giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzarako balioak, eta, ondorioz, ezin izango dute jendaurrean jarri sinbolo edo elementurik, baldin eta herritarrentzako iraingarriak izan badaitezke, pertsonen duintasuna urra badezakete edo indarkeria justifikatzea iradokitzen badute.

Halaber, erabiltzaileek Leioako Udaleko Kultura Arloa jakinaren gainean jarri beharko dute, funtzionamenduan araudia urratzen duen gertaerarik antzemanaz gero.

Eskatzaileak Kultura Arloari jakinaraziko dizkio lokalean edo bertako instalazioetan (altzariak, ontziak, etab.) gertatutako kalteak.

Txoko-zerbitzuaren erabilera amaitzean jarraitu beharreko argibideak:

Eskatzaileek bazkari, askari eta afarietan erabiltzen diren mahaiak guztiz garbi utzi beharko dituzte. Horretarako, erabilitako tresnak garbituko dituzte eta dagozkien lekuetan gordeko dituzte.

Erabilitako baso, taza, platertxo eta koilaratxoak garbitu egingo dira, erabili ondoren, eta ordenatuta eta berriz erabiltzeko prest utziko dira.

Garbitasun-arrazoiengatik, lokala erabiltzean sortutako zabor eta hondakin guztiak lokaleko erabiltzaileek botako dituzte, bakoitzaren birziklapenaren arabera banatuta.

Segurtasun-arrazoiengatik, argiak eta gasa itzali direla, leihoak eta lokaleko atea itxi direla, alarma aktibatu dela eta giltza jaso zen lekura itzuli dela bermatuko da.

Giltza itzultzeko orduan, behar bezala betetako "kontrol-orria" aurkeztu beharko da.



TXOKOAREN INBENTARIOA

Kontzeptua, marka, modeloa eta ezaugarriak	Kopurua
TRESNAK	
Lapurreta-alarma + sentsoreak	1
Sute-alarma + sentsoreak + pultsadoreak	1
Su-itzalgailuak	2
Aire-girogailuak	2
ALTZARIAK	
Egurrezko erakusmahaia	1
Egur ilunezko sukalde-arasa: 165 x 90 cm.	1
Egurrezko mahaiak	6
Egurrezko aulkiak	24
Barrarako egurrezko aulkiak	6
6 besodun esekitokia (zutik)	1
Egurrezko aterki-ontzia	1
Papera emateko tresnak	2
Eskuilak	2
Papera jartzekoa	2
Komuneko ispilua	2
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK	
Industria-sukaldea: gasezko 4 su eta ke-kanpaia	1
Gasezko labea	1
Hotz-ganbera - 2 ateko botilategia	1
Hotz-armairua (2 ate)	1
Fry-top (gasezko plantxa)	1
Baso-garbigailua	1
Ontzi-garbigailua	1
Izotz-makina	1
Estalki azpiko modulua, izkinan (altzairu herdoilgaitzekoa)	1
Estalki azpiko modulua, zuloarekin (altzairu herdoilgaitzekoa)	1
Estalki azpiko modulua, 2 kutxarekin eta zuloarekin (altzairu herdoilgaitzekoa)	1
Telebista-pantaila: Samsung 37"	1
ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK	
Frijiontzia	1
Sandwich-makina	1
Sakote-moztekoa	1



Mikrouhin labea	1
Kafe-makina elektrikoa (Firtsline)	1
TRESNERIA	
Kristalezko basoak	6
Ur/ardo basoak, 33 cl. (Ikea)	30
Kristalezko ardo-kopak	5
Txupito-basoak	30
Kristalezko ur-pitxerrak	3
Aiztoak	26
Haragirako aiztoak	30
Zopa-koilarak	27
Sardexkak	21
Postrerako sardexkak	12
Postrerako koilaratxoak	24
Kaferako koilaratxoak	6
Plater sakon zuriak (Ikea)	30
Plater zapal zuriak, 27cm. (Ikea)	31
Postrerako plater zuriak, 21 cm. (Ikea) (3 beste modelo batekoak dira)	29
Zizka-mizketarako erretilu marroiak: 30 x 20 cm	12
Zizka-mizketarako erretilu marroiak: 20 cm	12
Saltsetarako bol zuriak	6
Bol marroiak	6
Kristalezko bolak	4
Lapiko herdoilgaitza, tapa eta guzti (5 l.)	1
Lapiko herdoilgaitza, kristalezko tapa eta guzti (5 l.)	1
Lapiko herdoilgaitza, tapa eta guzti (10 l.)	1
Burruntzali herdoilgaitza (2 l.)	1
Pasta-xukadera herdoilgaitza (5 l.)	1
Eltzea (10 l.)	1
Grill zartagina	1
Zartaginak (24 cm.)	2
Wok (35 cm.)	1
Bitsadera	1
Burruntzalia	1
Zerbitzatzeko koilarak	2
Pasta edo entsalada zerbitzatzeko koilarak	2
Egurrezko koilara	1
Egurrezko espatula	1
Sukalderako hainbat aizto (ogia...) (Ikea)	5
Mikrouhinerako tapa	1



Kortxo-ko sukalde-aulak (2 txiki eta handi 1)	3
Plastikozko sukalde-aula beltzak	2
Mahai-tresnak gordetzeko plastikozko ontzia	2
Oliontzia, ozpinontzia, gatzontzia eta piperrontzia gordetzeko ontzia	1
Lata-irekitzekoa	1
Kortxo-ateratzekoak	2
Patata-zuritzekoa	1
Iragazki handia	1
Iragazki txikia	1
Egurrezko motrailua	1
Pospolo-kaxa txikiak	3
Espartzua	1
Eskuzorroa	1
Sukaldeko trapu latzak: 50 x 70 cm.	14
Kafe eta esnerako pitxer zuriak	2
Zerbitzatzeko metalezko erretilua	2
Metalezko erretilua, ertz altuekin	1
3 lapiko-joko (bat tapa eta guzti) eta burrunzali 1 (urdinak)	1
Pizza-moztekoa	1
Botila-irekitzekoa (Charm)	1
Sukaldeko 5 mahai-tresna joko (sardexka, espatula, koilara, burrunzalia, koilara angeluzuzena eta pintza) plastiko beltzezkoak	1
Pago-egurrezko 3 mahai-tresna joko	3
Altzairu herdoilgaitzeko 4 mahai-tresna joko (koilara, burrunzalia, espatula, pastarako koilara, etab.)	1
4 aizto-joko, egurrezko euskarriekin	1
Irabiagailua herdoilgaitza	1
Birringailu herdoilgaitza	1
Zuritzekoa (heltzeko beltza)	1
Janaria txikitzeko makina (eskuzkoa)	1
Inbutuak	2
Zorrozkailuak	1
Mahai-zapiaren babesak (zumezkoak)	2
Ezpainzapitako beltza	2
Itxitura hermetikodun tapak	2
Zumezko ogiontzia	1
BESTE BATZUK	
Birziklatzeko zaborrontziak (35 l.)	3
Zapatilak – entxufe anitzeko luzagarria	1
Bermeak	



KOMUNETAKO EKIPAMENDUA	
Bainugela egokitua / emakumeen bainugela:	
Eskuak lehortzeko paper-euskarria	1
Hormako ispilua	1
Paperontzia	1
Konketa	1
Komunontzia	1
Komuneko barra egokitua	2
Eskuila	1
Papera jartzekoa	1
Gizonen bainugela:	
Eskuak lehortzeko paper-euskarria	1
Hormako ispilua	1
Paperontzia	1
Konketa	1
Komunontzia	1
Eskuila	1
Papera jartzekoa	1



ZUHATZU TXOKOKO KONTROL-ORRIA

ESKATZAILEA:
ESKAERAREN ERREF.:
ERABILERA-EGUNA:

Kontzeptua, marka, modeloa eta ezaugarriak	Kopurua	EGOERA
TRESNAK		
Lapurreta-alarma + sentsoreak	1	
Sute-alarma + sentsoreak + pultsadoreak	1	
Su-itzalgailuak	2	
Aire-girogailuak	2	
ALTZARIAK		
Egurrezko erakusmahaia	1	
Egur ilunezko sukalde-arasa: 165 x 90 cm.	1	
Egurrezko mahaiak	6	
Egurrezko aulkiak	24	
Barrarako egurrezko aulkiak	6	
6 besodun esekitokia (zutik)	1	
Egurrezko aterki-ontzia	1	
Papera emateko tresnak	2	
Eskuilak	2	
Papera jartzekoak	2	
Komuneko ispiluak	2	
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK		
Industria-sukaldea: gasezko 4 su eta ke-kanpaia	1	
Gasezko labea	1	
Hotz-ganbera - 2 ateko botilategia	1	
Hotz-armairua (2 ate)	1	
Fry-top (gasezko plantxa)	1	
Baso-garbigailua	1	
Ontzi-garbigailua	1	
Izotz-makina	1	
Estalki azpiko modulua, izkinan (altzairu herdoilgaitzezkoa)	1	
Estalki azpiko modulua, zuloarekin (altzairu herdoilgaitzezkoa)	1	
Estalki azpiko modulua, 2 kutxarekin eta zuloarekin (altzairu herdoilgaitzezkoa)	1	
Telebista-pantaila: Samsung 37"	1	
ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK		



Frijiontzia	1
Sandwich-makina	1
Sakote-moztekoa	1
Mikrouhin labea	1
Kafe-makina elektrikoa (Firtsline)	1
TRESNERIA	
Kristalezko basoak	6
Ur/ardo basoak, 33 cl. (Ikea)	30
Kristalezko ardo-kopak	5
Txupito-basoak	30
Kristalezko ur-pitxerrak	3
Aiztoak	26
Haragirako aiztoak	30
Zopa-koilarak	27
Sardexkak	21
Postrerako sardexkak	12
Postrerako koilaratxoak	24
Kaferako koilaratxoak	6
Plater sakon zuriak (Ikea)	30
Plater zapal zuriak, 27cm. (Ikea)	31
Postrerako plater zuriak, 21 cm. (Ikea) (3 beste modelo batekoak dira)	29
Zizka-mizketarako erretilu marroiak: 30 x 20 cm	12
Zizka-mizketarako erretilu marroiak: 20 cm	12
Saltsetarako bol zuriak	6
Bol marroiak	6
Kristalezko bolak	4
Lapiko herdoilgaitza, tapa eta guzti (5 l.)	1
Lapiko herdoilgaitza, kristalezko tapa eta guzti (5 l.)	1
Lapiko herdoilgaitza, tapa eta guzti (10 l.)	1
Burruntzali herdoilgaitza (2 l.)	1
Pasta-xukadera herdoilgaitza (5 l.)	1
Eltzea (10 l.)	1
Grill zartagina	1
Zartaginak (24 cm.)	2
Wok (35 cm.)	1
Bitsadera	1
Burruntzalia	1
Zerbitzatzeko koilarak	2
Pasta edo entsalada zerbitzatzeko koilarak	2
Egurrezko koilara	1



Egurrezko espatula	1
Sukalderako hainbat aizto (ogia...) (Ikea)	5
Mikrouhinerako tapa	1
Kortxoazko sukalde-ataulak (2 txiki eta handi 1)	3
Plastikozko sukalde-ataula beltzak	2
Mahai-tresnak gordetzeko plastikozko ontzia	2
Oliontzia, ozpinontzia, gatzontzia eta piperrontzia gordetzeko ontzia	1
Lata-irekitzekoa	1
Kortxo-ateratzekoak	2
Patata-zuritzekoa	1
Iragazki handia	1
Iragazki txikia	1
Egurrezko motrailua	1
Pospolo-kaxa txikiak	3
Espartzua	1
Eskuzorroa	1
Sukaldeko trapu latzak: 50 x 70 cm.	14
Kafe eta esnerako pitxer zuriak	2
Zerbitzatzeko metalezko erretilua	2
Metalezko erretilua, ertz altuekin	1
3 lapiko-joko (bat tapa eta guzti) eta burruntzali 1 (urdinak)	1
Pizza-moztekoa	1
Botila-irekitzekoa (Charm)	1
Sukaldeko 5 mahai-tresna joko (sardexka, espatula, koilara, burruntzalia, koilara angeluzuzena eta pintza) plastiko beltzezkoak	1
Pago-egurrezko 3 mahai-tresna joko	3
Altzairu herdoilgaitzeko 4 mahai-tresna joko (koilara, burruntzalia, espatula, pastarako koilara, etab.)	1
4 aizto-joko, egurrezko euskarriekin	1
Irabiagailua herdoilgaitza	1
Birringailu herdoilgaitza	1
Zuritzekoa (heltzeko beltza)	1
Janaria txikitzeko makina (eskuzkoa)	1
Inbutuak	2
Zorrozkailuak	1
Mahai-zapiaren babesak (zumezkoak)	2
Ezpainzapitako beltza	2
Itxitura hermetikodun tapak	2
Zumezko ogiontzia	1
BESTE BATZUK	



Birziklatzeko zaborrontziak (35 l.)	3	
Zapatilak – entxufe anitzeko luzagarria	1	
Bermeak		
KOMUNETAKO EKIPAMENDUA		
Bainugela egokitua / emakumeen bainugela:		
Eskuak lehertzeko paper-euskarria	1	
Hormako ispilua	1	
Paperontzia	1	
Konketa	1	
Komunontzia	1	
Komuneko barra egokitua	2	
Eskuila	1	
Papera jartzekoa	1	
Gizonen bainugela:		
Eskuak lehertzeko paper-euskarria	1	
Hormako ispilua	1	
Paperontzia	1	
Konketa	1	
Komunontzia	1	
Eskuila	1	
Papera jartzekoa	1	

OHARRAK / IRADOKIZUNAK:

EGUNA:

SINADURA: